



MOROAK ETA EUSKALDUNAK

Zenon Uriguen aitak baturiko
bertso zarrak eta doñuak

Gerra makur egiñez
bultzada batean
Moroak buruzagi
Granada kortean.
Asko geiendu ziran
Zazpireun urtean
Euskal odolarekin
kutsatu artean.

Moro beltza zelarik
Españian nausi
Nabasen Euskaldunak
egin zion jauzi.
Euren kate gogorak
an gintuzen autsi
eta il etziranak
beldurrez iesi.

Orduan gure aurka
oiuz zeuden oro
gure lurretan jabe
Euskalduna bego.
Frantziak, Espāniak
bai orain bai gero
gure erriari beti
lotsa izan bearako.

Ez bada euskalduna
leen bezin aundi
lotsarik izan gabe
leial bizi bedi.
Odololez eta fedez
beti berdin garbi
ekin ta eutsi zintzo
Euskera zaarrari.